



FORMAZIOA 2020-2021

udazkena-negua

Formazio eskaintza

Heziketa libreago bat ehuntzen

Aurkezpena

2020-2021 ikasturtean zehar eskainiko dudan formazio baten berri ematera natorkizu honakoaren bitartez. Jakinen duzue, badira urte batzuk hitzaldiak eta aholkularitza-saioak eskaintzen ditudala Euskal Herriko ikastola, eskola eta ikastetxe ezberdinetan. Bada, aintzat harturik horietan guzietan detektatu ditudan beharrak eta interesguneak, heziketaren profesional, guraso eta orohar publiko zabalari eskainitako formazio-moduluak diseinatu ditut, ondoko lerroetan azaldu eta zehaztuko dudan formatupean.

Zer? Formatua eta gaiak

Lau moduluz osaturiko formazio honen formatua semi-presentziala izanen da. Hau da, 4 orduko 2 saio presentzial izanen dira, larunbat goizez, ikastaroaren hasiera eta bukaera emanen diotenak. Gainerakoa online emana izanen da. Alde batetik, ikastarorako propio grabatutako nire bideoak izanen dituzue eskura, gai bakoitzeko 2/3. Bestetik, enkontru birtualak izanen ditugu, 2.5 orduko iraupena izanen dutenak. Enkontru hauek grabatuak izanen dira, parte hartu ahal ez bazenute, ikusi eta entzuteko aukera izan dezazuen. Horrez gain, ordu bateko tutoretza saio baterako aukera izanen du parte-hartzaile bakoitzak.

Horrez gainera, dokumentazioa (artikuluak-eta) ere helaraziko zaizue.

Oсотara, 25 bat orduko formazioa da.



1. modulua: **Heziketa onaren printzipioak** (Bideoak, eta 2.5 orduko online-enkontrua)

GAITEGIA:

- Heziketa, zer da? zeri esaten diogu?
- Ikastea, zer da? zeri esaten diogu?
- Hezi vs akonpainatu.
- Haurrak, beren bizitzaren gidari eta bidegile propio.
- Eskola: bizitoki eta—beraz—ikastoki.
- Eskolari kendu ikastoki izatea eragozten dion guzia.
- Irakastea, ezinezko eginkizun hori. Zein da helduen egitekoa eskolan?
- Askatasuna, bizitzeko tresna preziatu hori.
- Heziketa *askatu*. Eskola librearen kontzeptua eta nolakotasuna.
- Eskola, bai ala ez?



2. modulua: **Garapen etapak I: garapenaren logika eta faseen nondik norakoa** (Bideoak, eta 2.5 orduko online-enkontrua)

GAITEGIA:

- Giza-garapenaren ezaugarriak eta nolakotasuna.
- Fase sexualaren kontzeptua.
- Sexualitatearen funtzioa. Plazera, binkulua, erregulatzaile energetikoa.
- Konkista eta porrot maduratiboaren kontzeptuak.
- Lehen urteen garrantzia. 0/7 urteak.
- Behar naturalak eta behar sekundarioak.
- Autorregulazioa vs frustrazioaren teoria.
- Zaindari “aski” ona. Guraso edo bidelagunen funtzioa eta egoteko modua.
- Atxikimendua.
- Ni*-a vs *Karakter*-a.



3. modulua: ***Garapen etapak II: fase bakoitzaren izaera eta esanahia*** (Bideoak, eta 2.5 orduko online-enkontrua)

GAITEGIA:

- Ahotasuna eta genitalitatea. Fase sexualak.
- Ahotasunaren garaia. 0/3 urteak. Intimitatearen mundu hori.
- Lehen urtearen garrantzia. *Jaiotzeko* behar dugun denbora.
- Agresibitatearen loratzea. 2 urteak
- Mundura ateratzea: genitalitatea. Identitate sexuala. Edipo. 3/7 urteak.
- Eskolara? Noiz, zergatik, zertarako, nola?
- Eskola-urteak: komunitatean integratzea. 6/12 urteak
- Nerabezaroa. Heldutasunak gure atera jotzen du, tok tok. Bigarren aukeraren garaia.



4. modulua: ***Askatasuna eta mugaren arteko dialektika, zaila baina beharrezkoa.*** (Bideoak, eta 3 orduko online-enkontrua)

GAITEGIA:

- Zer harreman dugu askatasunarekin?
- Askatasun pertsonala, soziala, komunitarioa, nazionala. Askatasunaren dimentsio ezberdinak.
- Haurren askatasuna. Nola kudeatu haurra laguntzea eta haurra aske uztearen arteko oreka.
- Askatasuna eta mugaren arteko dialektika.
- Muga motak. Barne mugak eta Kanpoko mugak. Nola kudeatzen dugu muga? gure buruarekin eta bestearekin?
- Mugak haurren adin ezberdinetan.
- Nola kudeatu: indibiduoa/taldea, askatasuna/muga, heldua/haurra.
- Nolako bidelaguna gara? gure mugak, beharrak, izateko modua ezagutu. Gure historia psiko-afektiboaren kontzientzia.
- Nola kokatu *bestearekin* (izan haurra ala heldu).

Non eta noiz? Tokiak. Datak.

Saio presentzialak: larunbatak, 10-14

ORIOko **ZINGIRA** ESKOLA

1. hasiera-**saioa:** 2020ko **urriaren 17an.**
2. amaiera-**saioa:** 2020ko **abenduaren 19an.**

Online-enkontruak: asteazkenak, 18-20

1. saio birtuala: azaroaren 4ean.
2. saio birtuala: azaroaren 18an.
3. saio birtuala: azaroaren 25ean.
4. saio birtuala: abenduaren 2an

Tutoretza-saioa (kasu partikularretarako espazio pertsonala), parte-hartzaile bakoitzarekin adostuko da.

Zenbat? Prezioa

Formazioak **160 euro** balio du.

Nola? Izen-ematearen prozedura

Izena emateko, **e-maila igorri** beharko duzue **kuku@aneablanedo.com** edo **aneablanedo@gmail.com** helbideetako batera.

Horrekin batera, eta erreserba modura, matrikularen %20a ordaindu beharko da honako **kontu-korrontean**: ES9530350082810820069186

Izena emateko **epea** irailaren 21ean hasiko da, eta ikastaro-saioa hasi baino 3 egun lehenago itxiko.

Parte-hartzaileen kopurua mugatua da.

Informazio gehiago: whatsapp idatzi honako telefononotara
0034**606763850**/0033**685921992**

Zuen gustukoa izanen delakoan, eta elkar topatuko dugulakoan

